

Printzesa hiria



ARITZ GALARRAGA

Marina Garceseekin behin bakarrik egon naiz. Egon, diot, ze ikusi, gurutzatu, are agurtu, egon ginen aldi hartatik, maiz xamar egin izan dut, ia bizilagunak baikara, edo baikinen, jada ezin jakin. Interbiu bat egitea onartu zidan, zer eta, beste pertsona bat nintzela uste izan zuelako, AS hain zuzen, nire lagun minenetako baten neska-laguna, era berean Garcesen lagun baten laguna dena. Nahasmendua probestu genuen halere, azkar ibili ginen; ez da beti gertatzen. Antisistema gisa etiketatuta duten filosofoak kokakola bat hartu zuen orduko hartan. Nik Vichy.

Bartzelonan bizi –oroi, bizilagunak ginen ia, edo gara, ezin jakin jada–, Zaragozako unibertsitatean egiten zuen lan garai hartan, egin zuen urte luzetan. Hor ez nintzen hain azkar ibili, ez nion galdetu etengabeko joan-etorri horiez, eskerrak aipatzen dituen *Ciutat Princesa* liburuan –biografia politiko moduko bat, bizitza baten gertakizunen zerrendatze hutsetik askoz harago doana; adibidez ez du esaten aitak Bartzelonako kanodromora eramaten zituela–. Aipatzen du ahizparen kasua, zeina urtez luzez bizi izan den Holandan. Eta konparatzen berearekin, etengabeko sartu-irtenean: “Badira hobeto itzultzea helburu duten joateko manierak; eta sekula bertan erabat egon gabe geratzekoak, nik denbora askoan egin bezala”. Ihes egitea erraza baita. Erronka litzateke nola itzuli amore eman gabe.

Izan ere, zer da hiri bat? Garcesen hitzetan, heldu, iritsi, arribatzen direnen lekua da hiria, ezezagunen artean bizitza berriz hasteko. Gustuko dut hiri suerte hori, gustuko dut Garces eta konpainiak hiria pentsatzeko duten modu hori, berradiskidetzten naute hamalau urte luzez –eta ze luze batzuetan, oh mama-abaro izan dudana hiriarekin. Gogoan dut garai batean liburu bat oparitzen nuela, *Odio Barcelona*. Gaur egunean ez harritu *Ciutat Princesa*-ren ale batekin ikusten banauzue. ●



“GURE ARROPAK GARBITZEAGATIK AMIANTOZ GAIXOTU DIRENEN AITORTZA EXIJITZEN DUGU”

CAF-EKO ENPRESA BATZORDEA

Amiantoaren ondorioz 50 langile hil dira CAF enpresan azken urteetan, baina gehiago direla dio enpresa batzordeak, esaterako zaintza lan aitortu gabea egiten zutenak: “Amiantoak emakume aurpegia ere badu”. Askotan, familiak “epai prozesu amaigabe eta sufrimendu luzera kondentatzen dituzte”. Hiru emakume nabarmendu dituzte: Vicenta Burguete, Puri Muñoz eta Maria Dolores Sabino. Horietako bi hilda daude, euren senidearen buzoa garbitzen aritzeagatik. Besteak beste, CAFi eskatu diote emakume horien kasuak laneko gaixotasuntzat hartzeko. **2020/03/06**

